

GALDAKAO-BARRUALDE ESiko KODE ETIKOA

Kode etikoaren helburua honakoa era gardenean eta publikoan definitzea da: **gure balioekin**, enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutuarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen eta behin-behineko langileen kode etikoarekin eta jokabideekin, eta indarrean dauden beste lege eta kode profesionalekin **koherentziaz** bat eginez, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuak – erakunde den aldetik – eta berori osatzen dugun profesionalok bete behar ditugun jokabide printzipioak eta arauak.

Kode hori gure interes-talde guztiei aplikagarri izango zaie, eta gure intranetean zein web-orrialdean kontsulta daiteke.

Gure profesionalek goi-hurrengo arduradun edo Gerentzia Kontseiluko kideengana (Zuzendaritza taldeko kideak eta kalitate- eta antolakuntza-teknikariak) jo dezakete posta elektronikoz, gertaerak eta bat ez etortzeak jakinarazteko plataformaren bidez; interesa daukaten gainerakoek, era berean, RSCren (Erantzukizun Sozial Korporatiboa) postontzia, gure web-orrialdean dagoena, balia dezakete kodeari lotutako edozein alderdiri buruzko kontsultak egiteko. Kontsulta guztiak Gerentzia Batzordeak aztertuko ditu. Gerentzia Batzordea gure erakunde kudeaketa-arlo guztietako organo ordezkaria da, eta, Erantzukizun Sozialari lotuta, borondatezko eran, gure erakundeak bere gain hartu ohi dituen arauak betearazteaz arduratzen da. Kode etiko honetan jasotako alderdiak ez betetzea zigortu egingo da, indarrean dagoen legediaren arabera.

Hurbiltasuna: ESiko pertsonak pertsonei arreta emateko daude; artatuak diren pertsonek errespetua, adeitasuna, konforta, komunikazioa eta segurtasuna senti dezaten denbora eta energia eskaini ohi dute.

- Eman ohi ditugun zerbitzuei buruzko informazio eta aholkularitza argia emateko konpromisoa hartu dugu, elkarrizketa sustatzeko eta gure etengabeko hobekuntzaren partaide egiteko asmoz, balizko keak, erreklamazioak eta iradokizunak helarazteko mekanismoak erabiltzaileen esku jarritz.
- 147/2015 DEKRETUAK, uztailaren 21ekoak, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duenak, ezarri dituen gure erabiltzaileen eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartu dugu.
- Eskubideok gure osasun zentro guztietan zein gure web orrialdean kontsulta daitezke.
- Datuen segurtasunerako eta babeserako araubidea betetzeko konpromisoa hartu dugu, betearazteko beharrezko neurriak eta neurritz gaineakoak uneoro ezarritz.

Konpromisoa: arreta eskaintzen diogun gizartearekiko konpromisoa. Osasun sistemako gainerako eragileekin lankidetzan dihardugu, eta sistemaren jasangarritasuna bilatzen, irisgarritasuna bermatzen eta gardentasuna sustatzen dugu.

- Gure zerbitzuak, unibertsaltasun, ekitate eta elkartasun printzipioetan oinarrituz, gizarte osoaren esku jartzeko konpromisoa hartu dugu.
- Gure giza taldearen bizitza pertsonala eta lan-bizitza bateragarri egiteko sistemak diseinatzeko orduan, proaktiboak izateko eta hori sustatzeko konpromisoa hartu dugu, betiere, gure zerbitzuen kalitatearen kaltetan gabe.
- Gure hornitzaileen artean erantzukizun sozialaren printzipioen etengabeko hobekuntzara zuzendutako jokabideak garatzea sustatuko dugu, eta beren kudeaketan aipatu printzipiook barne hartu dituztenak lehenetsiko ditugu.
- Administrazio Publikoaren Kontratazio Legea betetzeko konpromisoa hartu dugu, kontratuak esleitzerakoan elkarrenganako konfiantza eta gardentasun printzipioen arabera jokatzu.
- Ingurumen politika aktiboa garatzeko konpromisoa hartu dugu, kuantifikagarriak diren konpromiso publikoak gure gain hartuz.
- Bi urterik behin jasangarritasun-memoriak argitaratuz, gure jarduera ekonomiko, sozial eta ingurumenekoarekiko gardenak izan eta hori komunikatzeko konpromisoa hartu dugu. Memoriotan ekonomia-, gizarte-, eta ingurumen-arloetan gure jokabidearen bilakaera azalduko dugu, baita lortutako emaitzak ere.
- Berdintasunari buruzko 3/2007 Lege Organikoa betetzeko konpromisoa hartu dugu, horretarako ezarriko diren xedapenen eta planen bitartez.
- Barrualde-Galdakao ESiko langile guztiok konpromiso hau daukagu: gure esku dauden baliabideak —besteak beste ekonomikoak, materialak, giza-baliabideak eta ingurumen-mailakoak— arrazoizko eran eta jasangarritasuna bermatuz erabiltzekojokabide zuzen eta zintzoaz; edonolako ustelkeria, gehiegikeria edo interes-gatazketatik aldentuz.

Lidertza eta talde-lana: helburuak, ideiak, ezagutza eta informazioa partekatzen dira; diziplina arteko testuingurua sortuko da; bertan, elkarren eskutik joango dira norberak bere gain hartzen dituen erantzukizunak eta horretan parte-hartzea eta lankidetzat. Langile guztiak errespetatzen eta aintzat hartzen dira.

- Hobekuntzara eta berrikuntzara bideratutako jarduerak sustatzeko, laguntzeko eta parte hartzeko konpromisoa hartu dugu, horietan protagonismo eta lidergo aktiboa geureganatuz.
- Edozein profesionalen iritzirik erabakiak hartzeko eskumena duten organoetara hel daitezen beharrezko komunikazio bideak ezartzeko konpromisoa hartu dugu.
- 147/ 2015 DEKRETUA, uztailaren 21ekoak, erabiltzaileen betebeharrak zehazten dituen ezagutzera emateko eta horiek betetzea sustatzeko konpromisoa hartu dugu, eguneko jardunean elkarrekiko errespetua ahalbidetuz.

Profesionaltasuna: ESIk jakintza eta ezagutzarekiko konpromisoa hartu du. Jarduera bakoitzean eraginkortasuna, efizientzia eta etika soziala eta bioetikaren irizpideak batzen saiatzen da. Langile guztiak aintzat hartzen ditu.

- Gure profesionalen garapen profesionala ahalbidetzeko konpromisoa hartu dugu, horretarako eskuragarri diren ezagutzen kudeaketa-sistema garatzea sustatuz, eta eguneko jarduna eraginkortasunez betetzeko beharrezko prestakuntza eskainiz.
- Kortesia hutsezkoak ez badira, Barrualde-Galdakao ESIko inork ez du hornitzaile edo azpikontratatu jakinen mesedeko tratua eragin dezakeen oparirik edo antzekorik onartuko.
- Barrualde-Galdakao ESIrentzat lan egiten duen edonork, partikularrena barik Barrualde-Galdakao ESIren —erakunde gisa— interesa lehenetsiko du.
- Gure profesionalak errespetuz, duintasunez eta profesionaltasunez tratatzeko konpromisoa hartu dugu, eta autoritate-abusu, jazarpena edo bazterkeria ekidingo ditugu; horretarako, hain zuzen ere, balizko gaztakak konpontzeko bideak interesa duen edonoren esku utziko ditugu.
- Eguneko jarduna egiteko lan-baldintza fisiko eta inguruneak eskaintzeko konpromisoa hartu dugu, profesional bakoitzaren ezaugarri pertsonalak kontuan hartuta.
- Profesionalen ordezkariak horretarako propio diren foroetan sinatutako akordioak eta hitzarmenak errespetatzeko konpromisoa hartu dugu. Horrez gain, indarreko lan- eta gizarte-legeria ere bete eta betearaziko dugu.
- Laneko arriskuen prebentzio arloko indarreko legeria betetzeko konpromisoa hartu dugu, gure langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko xedeaz.

Berrikuntza: ESI etengabeko aldaketaren aldekoa da, konformagaitza da, aukerak bilatzen ditu, profesionalen sormena garatzen du, eta erratzeko arriskua bere gain hartzeko prest dago.

- Euskal osasun sistemaren baitako herritarrei eta erabiltzaileei zuzendutako osasun-prestazioan, balio erantsi handiagora lortzeko asmoz, beste erakunde batzuekin beharrezko aliantzak eta lankidetzat-harremanak ezartzeko konpromisoa hartu dugu.
- Gure eguneroko jarduna gizartearentzat balio erantsia sortzeko erantza garatzeko eta garapen kultural, ekonomiko eta sozialean parte hartzeko gizarte eragileekin beharrezko aliantzak eta lankidetzat-harremanak ezartzeko konpromisoa hartu dugu.
- Gure jarduna bideratzeko ezinbesteko baldintzat jo dugu gure zerbitzuak gure erabiltzaileen beharrei eta itxaropenei erantzuteko etengabe egokitzea; etengabeko hobekuntzaren ikuspegiarekin eta alderdi guztietan berrikuntza bilatuz.
- Erakundearen kudeaketaren hobekuntzan gure profesional guztiak era aktiboan parte har dezaten sustatzeko eta erratzeko konpromisoa hartu dugu.

Gure interes-taldee zuzenduta, kode honetan jasotako jardura guztiak era orokorrean eta globalean ezartzeko konpromisoa hartu dugu

2015eko irailaren 1a

Izpta.: Jon Guajardo Remacha
Barrualde-Galdakao ESIko zuzendaria gerentea

